

AGUR ETA ZORIONAK, ON TXOMIÑ!

Bai irakurle, nere agur-itzak On Txomi; i eskeiñi naiean asi naizenean, beste itz au bururatu zait barren-barrendik, zorionak! Izan ere, aren nor-zeréno-la izanak gogoratuaz, nik nola ez zorionak eman ain alako gizon apaizari? Bi goi-asmo artu bere bizitzarako, eta beren guzi-guzizkoan bete itz oiek; eta alaxe azkeneraiñoko guzian.

Beti ere zailla noski onelako asmoak betetzea, baiña gaur dan egunean, gaurko aldakorra eta ariña eta minbera ikusirik, nola ez zorionak eman gure On Txomiñ jaunari?

Berastegi'ko zaldun nobleek (armarria mintzo) irrifar egiñar onartuko zuten "beti-betiko" atsedenean beren erriko (Jau-Erriko) seme apaiza, ameslaria ta ongillea, erle-ezti zale baiña gertakari mintzatzetan oratua. Bijoakio nere agurrik beroena eta zorionik doatsuena.

Ttiki-ttikitatik, goizeko intzetan lorea bezelatsu, antza, ernatu ta azia izaki gure On Txomiñ, mendi-aldeko ederraren ederretan, aren bizi-senaren bizkorra "moro-katuaren" biurriak ikusiaz eta amorraien ixatx ieskorra eta txorien kabiak eta kumeak nabaituaz etab.

Ez nintzan bat-ere arritu mutilkoxorretako xamurra ikusi nionean, Andoain'go apaiz-muintegira joan zaneke artan. Begiak eme, biotza xamur eta goi-deiari egiñiko irrifarra biotz-ondoan, txoria kaiolan zeramala aruntz joan zala esaten digunean. Ñola ez zion-ba arrera gozo bat egingo Erretore Jaunak (Ustoa Jaunak) alako bixorra ikusi zuanean? Ttikitatik zekarren olerkari-doaia, gutxik bezelako; ttikitatik zetorkion iñorenganako maite-sena; eta iñori goi-bizia leunkiro emateko, erlezaintzarako esku ezta.

Ala noski apaiz-gaztetan, Araba aldean, eta guda beltzeko estu-aldietan eta, alaberean, guda-ondorengo Ameriketako apaiz-egintza ugarietan.

Aren ango ekintza ugarietan, ttiki bat berexiko. Surbi izena eman zion bere txakurrari, eizako txakurrari; Berastegi'tik eramana, iñongo txakurrik bizkorrena noski, benetan erena eta eiztariaren esanera umilla ta neka-eziña. Alako noski bere Surbi.

Baiña il-bearra etorri ari ere; eta il zanean, apaiz-etxeko baratzen lur-eman omen zion. Eta bere txakurrari agur egitekoan, kristauari ur bedeinkatua bezela, antza, bizpairu negar-malko isuri omen zizkion.

Unkigarria alako bukaera; berexi-berexia izan bait-zuan bere txakurra, ango jendeak, ala Gotzaiak ere, arriturik egon oi ziranak txakurraren ibilkera saiatuari ezin aspertuari begira.

Baiña apaizaren osorako (Jaunak esana) gurutzea bear, eguneroko gurutzea, maitasun biurtzen dana. Zenbat malko samiñ isurj ote zituan bere azkenaldi auetan Berastegi'ko bere gela umillean! Fede-miñak eta fede-ukaketak eta iritzi naasketak nabaituaz! Bere euskera maitearen eziñak eta ez-irudiak eta andikarako aserreak eta azpi-jokoak eta galerak.

Eskerrak gai auetan ere benetako fededuna zala eta odei illunetan ere, argi-une urdiñen bate aurkitzen zuala. Baiña, bai zaldun noblea (armarria mintzo) bere iritzietan eta bai apaiz fededuna bere eguneroko gurutzea artzekoan! Bijoakio nere agurra eta nere Zorion guzizkoa!